

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

5938

253/2011 DEKRETUA, azaroaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak izendatzeko dena.

Urriaren 13ko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 3/2011 Legearen 7. artikulua xedatzen duenez, Administrazio Kontseilua Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren gobernu-organo gorena da eta honako kide hauek osatzen dute:

a) Presidentea, zeina izango baita enpleguaren alorrean eskuduna den sailaren pertsona titularra.

b) Presidenteordea, zeina izango baita enpleguaren alorrean eskuduna den sailburuordetzaren pertsona titularra.

c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.

d) Bi kide, zeinak Eusko Jaurlaritzak izendatuko baititu eta, behar izanez gero, kargutik kendu, enpleguaren arloan eskuduna den sailak proposatuta.

e) Bost kide, Euskadin ordezkariarik handiena duten sindikatuen ordezkari gisa.

f) Bost kide, Euskadin ordezkariarik handiena duten sektore arteko enpresa-erakundeen ordezkari gisa.

Confebask Euskal Enpresa Konfederazioari dagokio enpresaburuen ordezkariak osatuko duten kideak izendatzea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatuen gaur egungo ordezkagaitasunari jarraiki, Administrazio Kontseiluaren sindikatu-taldeko bost kideen hasierako banaketa honako hau da:

1.– Eusko Langileen Alkartasuna/Solidaridad de Trabajadores Vascos (ELA-STV): bi kide.

2.– Euskadiko Langile Komisionen Konfederazio Sindikala (CCOO): kide bat.

3.– Langile Abertzaleen Batzordea (LAB): kide bat.

4.– Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT): kide bat.

Sindikatuak eta enpresa-erakundeak batzordekideak izendatzeko emandako epea amaitu ondoren, UGT sindikatuak kide titularren eta ordezkoen izendapenak jakinarazi dizkio sail honi. Administrazio Kontseiluan ordezkariak duten gainerako sindikatu eta enpresa-erakundeek ez dute izendapenik jakinarazi; beraz, 2011ko azaroaren 11ko jakinarazpenean jasotakoaren arabera, urtarrilaren 18ko 5/2011 Dekretuaren bidez aipatu erakundeen ordezkariak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide izendatu zirenak, adierazi gabe izendatutzat hartzen dira.

Ondorioz, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko azaroaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kide honako hauek izendatzea:

Kideak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren ordezkartzan:

José Felipe Yarritu Díaz, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren zuzendaria eta María Jose Madariaga Rola, Lanbide Heziketako zuzendaria, titular; eta Gloria Múgica Conde, Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria eta José Carlos Crespo Velasco, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea, ordezko.

– Enpresa-erakundearen ordezkartzan:

José Miguel Ayerza Mendiburu, Francisco Javier Azpiazu Lasuen, Juan Ugarte Aguirrezabal, Jon Bilbao Saralegui eta Nuria López de Guereñu Ansola, titular, eta Juan Ramón Apezetxea Escudero, Matías Gómez Conde, Yoana Arambalza Zalbidea, Asier Aloria Sánchez eta Carlos Pereda Martínez de Musitu, ordezko; guztiak ere Confebask Euskal Enpresa Konfederaziokoak.

– Sindikatuen ordezkartzan:

Mikel Noval Fernández eta Joseba Villarreal Olaizola, titular, eta Janire Landaluze Pérez eta Julene Gabiola Amallobieta, ordezko (Euzko Langileen Alkartasuna / Solidaridad de Trabajadores Vascos, ELA-STV).

María Dolores García García, titular, eta Goio Martín Benito, ordezko (Confederación Sindical de Comisiones Obreras de Euskadi, CCOO).

D. Oihan Ostolaza Arruabarrena, titular, eta Rafael Izquierdo Sánchez, ordezko (Langile Abertzaleen Batzordeak, LAB).

Felipe García Miravalles, titular, eta José Ramón Lopategui Martín, ordezko (Unión General de Trabajadores de Euskadi, UGT).

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren estatutuetan ezarritako iraupena izango dute izendapenek.

AZKEN XEDAPENA.– Dekretu hau onartzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko azaroaren 29an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZA ZABALET A RETA.